


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 igo ziren 2005eko martxoan

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko martxoa, 2004ko martxoarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %6,3 igo ziren.

2005eko martxoan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 igo zen aurreko hilaren aldean, eta martxorako urte arteko tasa %6,3ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*) Hazkundera martxoko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko martxoan, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,3 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera desberdinak izan zituzten: aurreko hilaren aldean %0,2 igo zen Eraikuntza eta %0,7 Obra Zibileko lehengaien kostuak. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ibilbide berdinak izan zituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako lehengaien kostuak %7,4 igo ziren eta Obra zibilekoak beste horrenbeste.

Martxoan, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiek izan zituzten: *petroliotik eratorritakoak* (%8,3), *landutako harria* (%6,2), *asfalto-produktuak* (%4,1), *energia elektrikoa* (%2,9) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (%1,7) lehengaiek. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten besteak beste *garbitzeko eta*

txukuntzeko materialak (%-1,6), *leherkariak eta gasak* (%-1,0), *erabilitako makineria-osagarriak* (%-0,9) eta *burdina eta altzairua* (%-0,6) lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%33,3), *burdina eta altzairua* (%27,8), *asfalto-produktuak* (%24,8) eta *petroliotik eratorritakoak* (%24,1) lehengaiek. Bestalde, urte arteko prezioetan (2005eko martxoa, 2004ko martxoaren gainean), murrizketak izan zituzten *beira* (%-5,5), *leherkariak eta gasak* (%-2,4), *bulego-materiala* (%-1,4), *energia elektrikoa* (%-1,0) eta *egurra eta kortxoa* (%-0,1) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005KO MARTXOA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000 = 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	118,8	0,2	6,3	3,0	
ERAIKINAK	118,7	0,2	6,3	3,0	
OBRA ZIBILA	119,1	0,4	6,1	3,3	
LEHENGAIEN KOSTUA	115,9	0,3	7,4	2,6	
ERAIKINAK	116,0	0,2	7,4	2,6	
OBRA ZIBILA	115,7	0,7	7,4	2,8	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	125,4	0,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp